

H LH6



Izen-deiturak

Ikastetxea

Taldea

Herria

Data



60 minutu dituzu proba hau egiteko

Gaitasuna ekoizpen idatzian

LHko 6. maila

2015-2016 ikasturtea

Iritzi artikulua

idazten dut

Demagun zure ikastetxean urtebetetzeak ikasgelan ospatzen direla, *merendolak* egiten direla eta oso ongi pasatzen duzula. Horrez gain, neska-mutil askok beren etxeetan urtebetetze festak ospatzen dituzte, gonbidatu zerrendekin, jarduera dibertigarriekin, telefono mugikorren bidez egindako gonbidapen oso politekin, etab.

Demagun joan den astean ama batek ikastetxeko blogean idatzitako iritzi artikulua bat irakurri zenuela (eskuinaldean duzu), eta **imajina ezazu orain zuk ere gai beraren gainean iritzi artikulua bat idazten duzula.**

Idazten hasi aurretik, testua prestatzen zertxobait lagunduko dizugu.

IKASTETXEKO BLOGA



Zume negartia
Eskolako aldizkaria

IRITZI ARTIKULUA

Urtebetetze festak hobetzea

Orain dela egun batzuk beste eskola batera joan nintzen, nire iloba baten bila, eta urtebetetze festa bat ospatzen ari ziren. Konturatu nintzen eskola hartan urtebetetze festak ez dituztela tartekin eta gozokiekin ospatzen. Beren seme-alabak jasotzera joandako gurasoekin hitz egin nuen eta azaldu zidaten duela urte batzuk erabaki hori hartu zutela, arriskuak asko zirelako eta zenbait elikagairi alergiak zizkieten neska-mutilak zeudelako. "Beste modu batera ospatzen ikasi behar dugu, osasungarria ez den janaririk gabe" erantzun zidaten.

Era berean, azaldu zidaten bere ikastetxeko Lehen Hezkuntzako neska-mutilak hasiak zirela urtebetetze festak ikastetxetik kanpo ere antolatzen eta, baita ere, festa horietan ere berdin jokatzen zutela.

Denok badakigu gaur egun haurren elikaduran arazo larriak daudela.

Nire ustez, urtebetetzeetan janari osasungarria soilik jartzea ona litzateke, bai ikastetxean eta baita gure etxeetan ere: zuku naturalak, gatzik gabeko fruitu lehorrak, etxean egindako bizkotxoak (azukre eta koipe gutxirekin egindakoak), fruta...

Idazten hasi aurretik komeni da artikulua ongi

planifikatzea.

Hona hemen hausnartu beharreko zenbait puntu:

1. Hartzaile nagusiak hauek dira:
2. Artikuluan defendatuko dudan ideia nagusia hau da:
3. Artikuluaren izenburua hau izanen da:
4. Azalduko ditudan ideiak eta argudioak honako hauek dira (3 edo 4):
.....
.....
.....
.....
5. Artikuluaren bukaeran argi azalduko dudan jarrera hauxe da:

.....

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

